

Irizar i8a, onenetan onena

Bere historian lehen aldiz Irizar markak Europako sari entzutetsuena irabazi du.

Irizar i8 autokarra 2018ko Autokar onean izendatu dute Europan.

Europako 22 herrialdetako aldizkari prestigiotsuenetako kazetari espezializatuek osatu dute epaimahaia eta erabaki dute saria Irizar i8ari ematea bere ezaugarri zenbatezinengatik eta eskaintzen duen balio erantsi handiagatik.

Sari hau Irizarrek azken urteetan egindako jauzi estrategiko handiaren ordaina da eta Europako sektoreko fabrikatzaile independente (OEM) onenen artean kokatzen gaitu.

Irizar i8a ondo pentsatutako diseinu, teknologia eta iraunkortasun konbinazioa da, gidariari, gidari eta bidaiariei erosotasun itzela eskaintzen diena eta jabeei prestigioa ematen die. Kalitatearen, segurtasunaren, errentagarritasunaren, sendotasunaren eta fidagarritasunaren ordezkari gorenena da gainera eta nabarmendu egiten dira sektorean bere nortasun handia eta inpaktu bisuala.

Irizar i8a da, bere gamako gainerako autokarrekin batera, marka honek bere etorkizuna proiektatzeko duen oinarria ibilbide luzeetako eta zerbitzu berezietako sektoreetan. Irmo esan daiteke, beraz, Irizarrek gaur egun Europako autokar gama onena duela. Halaxe bermatzen dute Irizarren belaunaldi berriko ibilgailuak dituzten hainbeste bezerok.

Euro Coacheko balaztatze eta azeleratze saioretan, eta autobide eta bigarren mailako errepideak nahasiz osatutako 30km-ko errepide gidatze probetan ibilgailuak izan duen errendimendua eta portaera bikainak eman diote saria Irizar i8ari. Aipagarria da lehen postu honek meritu handiagoa duela aurkeztutako ibilgailua 3 ardatzekoa eta 14 metrokoa zelako eta lehiakideak 12m eta 2 ardatzekoak ziren, nabarmen arinagoak.

Podiumera eraman duten arrazoietakoz batzuk hauek dira. Kanpoko eta barruko diseinua, balaztatzean portaera ezin hobea eta biratze-radioa. Ingurumenarekin lotutakoak ere oso positiboak dira "ibilgailuaren gehieneko gaitasunagatik, energia kontsumo txikiagatik eta bibrazio eta zarata maila oso txikiengatik, baita bihurtune itxienetan ere". Teknologiarik dagokionez, aginte-mahaia erreferente bat da tekla multiplexatuegatik eta HMIa estandar gisa doalako. Segurtasunari dagokionez: Aurrealdeko FULL LED argiak, AEBS, LDW, TPTMS, ACC eta DFT bezalako sistema aitzindariak. Gainera, R 66.02" betetzen da. Gastu osoari erreparatuz gero i8a erreferentea da kontuan hartzen baditugu salneurria, balio-galera eta hondar-balioa, kontsumoa, eta konponketa eta mantentze-kostuak .

Sarirako hautagaiak



Historian lehen aldiz Suedian egin dira Coach Euro Test probak. Zehazki Lingköping hirian, Stockholmetik 240 km hegoaldera. Hantxe bildu dira edizio honetan parte hartu duten sei autokarrak. Irizar i8 integrala, Iveco Busen Evadys, Mercedes-Benzen Turismo, Neoplanen Tourliner, Scaniaren Interlink HD eta VDLren bi solairuko Futura FDD2-141.